



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Docentiaz

DOCENTIAZ

IRAKASLANA

EBALUATZEKO PROGRAMA

**Ikastegietako Kalitate Batzordeek
DOCENTIAZ programari buruz egindako iritzi
inkestan oinarritutako txostena
13. deialdia**

2023ko abendua



SARRERA

DOCENTIAZ programa, gaur egun ANECA eta UNIBASQ kalitate-agentziek ziurtatua, UPV/EHUko irakasleen irakaslan ebaluatzeko programa bat da.

DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslan ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaslanari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakaslanaren zenbait alderdiri buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako azken txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren hamahirugarren deialdia 2023eko urtarrilean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutaraziz, eta, 2023ko urrian amaitu zen.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak (hemendik aurrera IKB) DOCENTIAZ programan parte hartzen duten bere ikastegiko irakasle bakoitzaren txosten labur bat egin behar du. Txosten hori telematikoki bete zen 2023ko martxoaren 6tik 17era bitartean.

IKBk egindako txostenean, ikastegiko irakasleen lanaren honako alderdi hauei buruzko informazioa emateko eskatzen zaie:

- I. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena: irakasleak aurkeztutako ikaslearen gidan deskribatutako gaitasunak titulaziokoekin eta irakasgairako zehaztutakoekin bat datozen eta ikasketa planeko irakaskuntza modalitateen aurreikuspenari erantzuten dioten egiaztatu behar da.
- II. Emaitzak: irakasleak hautatutako irakasgaiaren arrakasta tasak aurkezten dira, baita *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta* ere, Kalitate Batzordeak datu horiek dagokien testuinguruan koka ditzan.
- III. Irakaskuntzaren koordinazioa: eskatzen da erantzutea ea ondo egin den, eta eragin positiboa izan duen arrakasta tasetan eta ikasleek duten irakasgairi buruzko iritzian.

Jarraian, IKBetako kideei egindako galdetegi batetik lortutako emaitzak ageri dira. Galdetegia bide telematikotik erantzun zen. Galdetegia bidali zitzaian IKBetako 270 kidetatik 139k erantzun zuten; hau da, % 51k gutxi gorabehera.

Galdetegiak DOCENTIAZ programaren edukiari buruzko 13 item ditu. Horietatik 9 galdera egituratu itxiak dira, eta 5 balioko eskala eskaintzen dute gaiaren enuntziatuaren araberrako maila adierazteko; 1 galdera egituratu itxia da, 7 batez besteko eskaintzen dituen espediente bakoitzaren berri emateko lanean emandako denbora kuantifikatzeko; eta 3 galdera ireki dira.

INFORMAZIOAREN AZTERKETA

Jarraian, deialdi honetan parte hartzen duten irakasleak dituzten Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideei zuzendutako galdetegiaren bidez jasotako erantzunen emaitzak laburbiltzen dira. Erantsitako informazioan – Lortutako erantzunak – Item bakoitzean lortutako ehuneko balioak kontsulta daitezke, balorazio eskalaren balioen arabera, bai eta item irekietan lortutako erantzun guztien laburpena ere, gaikako arloen arabera multzokatuta.

IKBk bete beharreko **lehenengo atalari** dagokionez, **“Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren Plangintza eta Garapena”**, % 80 nahiko edo erabat ados daude Batzordeak egiaztatu egin behar duela irakasleek aurkezturiko Ikasleen Gida ote datorren bat tituluan ezarritako ildoarekin, eskatutako gaiaren gaitasunekin, eta ikasketa planen irakasteko modalitateei erantzuna ematen dien. % 6 ez daude oso edo batere ados IKBk atal honetan iritzia ematearekin. Bestalde, % 78k uste du atala erraz betetzekoa dela.

“Emaitzak” bigarren atalari dagokionez:

- % 57k uste dute IKBk aztertu egin behar dituela irakasleen arrakasta tasak eta taldeko/mailako batez-bestekoaren artean egon litezkeen aldeak; % 17 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 26 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. % 77ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.
- % 61aren ustez, IKB-k aztertu egin behar ditu ikasleen iritzi-inkesten emaitzetan, irakasleen eta irakasgaiaren, Titulazioaren eta Sailaren txostenaren artean egon daitezkeen desadostasunak. % 21 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 18 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. Bestalde, % 81ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.

Hirugarren atalari dagokionez, **“Irakasleen garapen profesionala”**, IKBk betetzen duen azken atala, % 61k uste du egokia dela IKBk atala betetzea, eta beste % 19ek berriz, uste du ez duela zertan bete. Gainerako % 20 zalantzan daude. Bestalde, % 50rentzat erraza da atal hori betetzea.

Azkenik, % 88k Ebaluazio Zerbitzuak eskainitako arreta egokia izan dela uste du.

Emaitzei erreparatuta, hau ondoriozta daiteke: % 65 inguruk uste dute egokiak direla IKBak bere txostenean bete beharreko atalak, eta, % 72ren ustez erraz bete daiteke atala. Txosten bakoitza egiteko erabilitako denborari dagokionez, erantzun nagusia 30-45 minutukoa izan zen.




Eranskina: Jasotako erantzunak




Docentiaz Programaren dimentsio bakoitzari dagozkion ehuneko grafikoak


1. Dimentsioa




2. Dimentsioa




3. Dimentsioa



9. Itema Adierazi txosten bakoitza egiteko erabilitako batez besteko denbora:



11. Itema Ebaluazio Zerbitzuko langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei.





Erantzun irekia duten itemen emaitzak, erantzunak gaikako edukien arabera bilduta

10. itema.- Adierazi txostena egiteko zeregina zaildu duen alderdi bat. *(33).

***57 pertsonak erantzun dute, baina horietakoren batek adierazitakoen alderdi bati baino gehiagori buruzko iritzia eman du; beraz, guztira 33 erantzun jaso dira.**

Erantzunak, beherago daudenak, blokeka multzokatu dira, laburbilduta, erantzun kuantitatiboa duten itemetan baloratu ez ziren alderdiak nabarmenduz.

1. Informazioa kontsultatzea: (10)
 - o Batzuetan, irakaskuntza-gida ez da kargatzen; informazioa ez da nahikoa alderdi jakin batzuk baloratzeko.
2. Docentiaz aplikatiboa: Diseinu ez oso intuitiboa; karga geldoa; nabigatzaileekiko bateragarritasuna, murriztua (9)
3. Irakasleen koordinazioari dagozkion itemak baloratzeko zailtasuna, informaziorik eta/edo ebidentziarik ez dagoelako. (7)
4. Ikastetxeari atxikitzea ez dator bat irakasgaia ematearekin, beste ikastetxe batekoak diren graduetakoa irakasgaiak ebaluatzeko zailtasuna. (5)
5. Lan horietan aurretik esperientziarik ez izatea. (4)
6. Dokumentazioa berrikusten eta txostena egiten denbora eman beharra. (3)
7. Arrakasta-tasei buruzko itemak baloratzeko zailtasuna, zehaztutako irizpideak ez izateagatik. (2)
8. Balorazioa bideratzeko alde aurretik zehaztutako irizpiderik ez izatea. (2)
9. Egin beharreko lanaren konplexutasuna. (2)
10. Aipatzeko ezer ez. (5)

12. itema.- Ikastegietako Kalitate Batzordeek egindako txostenaren edukia eguneratzea aurreikusiz, zure ustez, zer alderdiri buruzkoa izan beharko litzateke txostena? (33)

Erantzunak, beherago daudenak, blokeka multzokatu dira, laburbilduta, erantzun kuantitatiboa duten itemetan baloratu ez ziren alderdiak nabarmenduz.

1. Gai horri erantzuteko prest ez egotea. (3)
2. 1 dimentsioa (1)
 - Gida batean argi eta garbi jaso beharko lirateke gai bakoitza interpretatzeko irizpide zehatzak.
3. 2. dimentsioa (2)
 - Gida batean argi eta garbi jaso beharko lirateke gai bakoitza interpretatzeko irizpide zehatzak.
 - Ez da egokia ikasleei beren irakasleen irakaskuntzari buruzko iritzi-inkestari buruzko azpidimentsioa, ez baitago alderdi hori irakaskuntzaren kalitate handiagoarekin lotuta dagoela bermatzen duen ebidentziarik.
4. 3. Dimentsioa: Irakasleen koordinazioa: dimentsio hori berrikusi egin beharko litzatekeela adierazten duten erantzunak dira. Jarraian, aipatutako argudioak laburbiltzen dira (6):
 - Ezinezkoa da jakitea irakasleen koordinazioak eragin positiboa izan duen ikasleen arrakasta-tasetan eta iritzietan.
 - Koordinazio eraginkorra ebaluatzeko protokolo bat ezarri beharko litzateke, eta puntu horri buruzko txostena egiteko ahalmena nork duen zehaztu. Definitzen ez bada, puntu hori ezabatu beharko litzateke.
 - Ikastetxeetatik, ikasturteko eta graduako batzordeek askoz ere informazio gehiago bildu beharko lukete irakasgai bakoitzari lotutako irakasle-taldea osatzen duten irakasleen jardunari buruz. Jakina, gainera, irakasgai baten irakaskuntza-ikastaroari buruzko informazioa irakasle bakar batek ematen duenean.
 - Koordinatzaile gisa egindako ebaluazioaren atala kentzea, ez funtzio horren garapena, baizik eta funtzio horren ebaluazioa, ez baitu horretarako irizpiderik.
 - Koordinazioa behar bezala egin dela frogatzeko: ebaluatuko diren ikastaroetan irakasgaiaren koordinazio-txostenak aurkeztea.
 - Irakasleen koordinazioari dagokion dimentsioa birformulatu beharko litzateke.
5. Sartu beharreko alderdi berriak (12):
 - Arrakasta-tasa kontuan hartzeaz gain, ebaluazio-tasa ere kontuan hartu beharko litzateke (1).
 - Balorazio kualitatibo bat sartzea (1).
 - Galdetu, labor bada ere, ikastetxeetan irakaskuntzaren arloan ematen diren zailtasunei buruz. Hori da gure egunerokotasunean eragiten duena: ikasle



kopuru desberdina, ikasleen euskara maila baxua, etab. Uste dut horrek irakasleen lana testuz inguratzeko balioko lukeela (1).

- Ez dator ezer ikasleen zailtasunak jasotzen dituzten datuei buruz. Alderdi ekonomikoa (bekak) baino ez da jasotzen (1).
- Irakaskuntza Egiaztatutako Memorian adierazitakora egokitzen bada (1).
- Berrikuntzari, zorrotasunari, sustapenari eta betetzeari buruzko itemak sartzea (2).
- Kalitate-batzordearen zereginak Docentiaz-en: kontsulta-organoa izan beharko luke, edo parametro batzuk berrikusi beharko lituzke, hala nola iritzi-inkesten puntuazioa edo irakasgaiaren arrakasta-tasak, alderdi formaletan soilik egin beharko luke lan (3).
- Ikaslearen gidan adierazitakoa eta proposatutako ikaskuntza-jarduera irakasgaien benetan ezarrita daudela egiaztatu beharko litzateke (2).

6. Txostenaren egungo edukia egokitzat jotzen dute. (9)

7. Uste dute ez dela egokia Kalitate Batzordeak txostena egitea. (2)

13. itema.- Adierazi nabarmendu nahi nukeen beste gairen bat. (24 pertsonak erantzun duzu, baina kasu batzuetan alderdi bat baino gehiago adierazten dute)

1. Ezer azpimarragarririk ez. (6)

2. 3. dimentsioa baloratzeko zailtasuna. (6)

3. Ikasleei irakasleen irakaskuntzari buruz egindako iritzi-inkestei garrantzia kentzea. (3)

4. Txostena egiteko epea luzatzea. (2)

5. Zentrokoak ez diren graduetakoa irakasgaiak baloratzeko zailtasuna. (2)

6. Aplikazioa hobetzea. (1)

7. Lan deserosoa da ikaskideen informazioa izatean (ikasleentzako gida eta inkestaren emaitzak). (1)

8. Beste batzuk (4):

- Administrazio-lana da
- Kalitateko dekanoordetzak lana errazten duen alde aurreko lan bat egiten du.
- Kontuan hartu beharko lirateke Kalitate Batzordeak Gradu Batzordearekin egindako bilerak.
- Maila bereko irakasgaietan ebaluazioa homogeneizatu beharko litzateke.